

BALIO PROPOSAMENA

Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da, eta lehiakideengandik bereizten gaituena.

- **Zer behar edo arazo konpontzen duzue?**

Hasteko, umeen beharrak asetzen ditugu, jostailuak, arropa... emanaz. Jostailuak, arropa... berriak eta berrerabilitakoak dira eta artikuluren bat nahi duenak diru kantitate bat ordaindu behar du, hura lortzeko. Gero diru hori "Save the Children" izeneko Euskal Herriko GKera (Gobernuz Kanpoko Erakundera) bidaliko dugu. Honek beste umeen zorientasuna suposatuko du bi modu ezberdinetan.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Esan bezala, guk egiten dugun guztia beste pertsonen zorionerako da. Web berezia da, eta honek berritasuna suposatzen du. Webgunean jostailuen katalogoa ageri da alde batetik, eta zuzenean ordaintzeko aukera dago. Beste alde batetik, bakoitzak dituen jostailuak edo ondasunei bigarren erabilera bat emateko apartadua dago, "Save The Children" erakundearekin kolaboratuz. Gainera irabazien %50 "Save the Children" GKerako izango dira. Webgune hau, laguntzeko prest dauden pertsonentzako izango da, modu batean edo bestean denok irabazten dugu.

Lehiakideengandik bereiz gaitzke honakoen bitartez:

- Berritasuna, ez baitago horrelako beste webgunerik eta honi esker beste pertsona batzuei laguntzeko aukera izango dute gure bezeroek.
- Prestazioak, produktu baten erabilera hobetzea da gure xede nagusia, kasu honetan arropa, jostailuak...
- Pertsonalizazioa, pertsona bakoitzak berak gustuko duen panpin edo arropa edukitzeko aukera izango du kostu baxuagoan.
- Lana erraztea, webgune honetan marka askotako jostailu eta arropa desberdinak egongo dira eta ez da izango beharrezkoa beste webgune batzuetara sartzea nahi duzunaren bila, dena webgune bakar batean edukiko duzu.
- Diseinua, webgune dijital simplea izango da, denok erraz nabigatzekoa eta ulerterraza.
- Marka/Estatua, esan bezala, marka desberdinetako jostailu eta arropa mota desberdinak egongo dira.
- Prezioa, esan bezala, prezioa merkatuan baino baxuagoa da.
- Arriskuen murrizketa, kalitate oneko produktuak daude eta ez dago arriskurik.
- Eskuragarritasuna, enpresek ondasunak hornitzen dizkigute, eta horrela, bere jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzen dute.
- Erabilerraztasuna, eskatutako jolas denek edukiko dute nola erabiltzen den azalpen erraza, marrazki eta testuaren bitartez hezkuntza desberdinetan.